

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea

**Sociedad para la Transformación
Competitiva, SA**

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Etorkizuneko konpromisoak	10
IV. URTEKO KONTUAK	11
ERANSKINAK	15
A.1 Araudi aplikagarria	15
A.2 Taldeko enpresetan eta kide-tuetan epe luzeko inbertsioak	16
A.3 Epe luzeko finantza-inbertsioak	17
A.4 Langileria-gastuak.....	17
A.5 Ustiapeneko beste gastu batzuk	18
A.6 Kontratazioaren analisisa	19
ALEGAZIOAK	21



ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN	31
II. OPINIÓN.....	33
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	33
II.2 Opinión sobre las cuentas.....	33
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	34
III.1	34
IV. CUENTAS ANUALES.....	35
ANEXOS	39
A.1 Normativa aplicable	39
A.2 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo	40
A.3 Inversiones financieras a largo plazo	41
A.4 Gastos de personal	41
A.5 Otros gastos de explotación.....	42
A.6 Análisis de contratación.....	43
ALEGACIONES	45

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 26a
Vitoria-Gasteiz, a 26 de septiembre de 2019



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AKF Arrisku Kapitaleko Funtza.

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.

IFL Inbertsiorako Finantza Laguntzak.

SPKLTB Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (hemendik aurrera Epaitegia), otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko Bilkuran onetsitako lan-egitasmoan ezarritakoarekin bat etorri, 2017. urteari dagozkion Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAREN (aurrerantzean, Sozietatea) Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: indarrean dagoen legeria betetzea honako alor hauetan: ondasun eta zerbitzuen erosketa, langileak, diru-laguntzak ematea eta kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fiskalizazio-lana sektore publikoari aplikagarri zaizkion kontu-ikuskapeneko printzipioekin eta arauekin bat etorri garatu da. Horretarako, egoera bakoitzean beharrezkoak izan diren kontu-ikuskapeneko ohiko hautaketa-probak, prozeduren berrikustea eta bestelako teknikak egin eta erabili dira, txostenean jasotako irizpenei oinarria emateko; barne hartuz kanpoko kontu-ikuskariak eginiko urteko kontuen kontu-ikuskaritza jasotzen duten lan-paperekin berrikustea.

1981eko irailaren 21ean Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI) SA eratu zen ekainaren 10eko 5/1981 Legea aplikatuta. 2011ko ekainaren 6an Arabako Merkataritza Erregistroan Sozietatearen izen aldaketa erregistratu zen, Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA izen berria hartuz. Sortze-legearen arabera, Euskadiko Ogasun Nagusiak zainduko du Sozietatearen oreka finantzarioa.

Sozietatearen helburua da euskal industria sustatu eta eraldatzea enpresen sustapen bidez; enpresa berrien sorrera bultzatzea eta jada finkatuak daudenak zabaltzea; bideragarritasun baldintzak betetzen dituzten enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuak babestea; eta ikerketa eta grapen proiektuak indartzea.



Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura Sailaren mendeko sozietate publikoa da. Akziodunen osaera 2017ko abenduaren 31n honakoa zen:

	Euroak milakotan	
	% partaidetza	Zenbat.
Euskal Autonomia Erkidegoa	% 99,14	475.905
Kutxabank SA.....	% 0,86	4.138
GUZTIRA	% 100	480.043

Sozietatea entitate multzo baten buru da eta indarreko legediaren arabera, urteko kontu bateratuak formulatu ditu.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Sozietateak lan kontratu mugagabe bat egin du eta ekainaren 27ko 3/2017 Legearen Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan- finkatutako birjartze-tasa gainditu du.

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera, Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAK zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAren 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, hor jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

2017ko Urteko kontuen memorian adierazitako moduan, EAEren 2018ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legeak Hamahirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten du SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia SA zuzenbide pribatuko ente publikoa sortzea eta Sozietatea sortu zuen 5/1981 Legea indargabetzea. 2018ko azaroaren 13an, Eusko Jaurlaritzak 161/2018 Dekretua onartu zuen, enteari egitekoak gauzatzeko beharrezko dituen ondasunak eta ondarea atxikitzen dizkionak eta zehazki, Sozietatearen kapitalean titulartasun publikoko partaidetza guztiak. Gainera, Sozietatea desegiteko baimena ematen da, aplikagarria zaion araudiaren arabera dagozkion izapideak aldeztatik bete ondoren.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioen betetzeari nabarmen eragiten ez dioten hutsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak jasotzen dira.

III.1 ETORKIZUNeko KONPROMISOAK

Sozietateak 2017ko abenduaren 31n hartutako etorkizuneko konpromisoak guztira 15,7 milioi euro dira guztira eta ondartutako kredituak 1,2 milioi euroan gainditzen ditu; hori dela eta, bidezkoa den aurrekontuko aldaketa izapidetu behar zukeen. Gehiegikeria hau nagusiki Makina-erremintako Programak eragin du. Izan ere, programa honek 2018ko ekitaldirako 9 milioi euroren aurrekontua du eta programaren azken aurrekontuei estaldura ematen die, 8,9 milioi euroan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan			
AKTIBOA	ERANSKINA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		403.787	406.943
Ibilgetu materiala		254	123
Ibilgetuko inbertsioak.....		1.208	1.208
Taldeko eta elkartutako enpresetan inbertsioak epe luzera	A.2	364.626	362.493
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	A.3	36.720	41.844
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		979	1.275
AKTIBO ARRUNTA		14.979	14.960
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk		8.319	4.268
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....		6.660	10.692
AKTIBOA, GUZTIRA		418.766	421.903
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA			
ONDARE GARBIA		388.760	392.421
Funts propioak.....		386.243	389.142
Eskrituran jasotako kapitala		480.043	459.633
Erreserbak		32.676	32.676
Aurreko ekitaldien emaitzak		(103.167)	(91.238)
Ekitaldiaren emaitza.....		(23.309)	(11.929)
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.....		2.518	3.279
PASIBO EZ-ARRUNTA		23.530	23.169
Taldeko eta kidetutako enpresekiko epe luzeko zorrak.....		22.551	21.894
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		979	1.275
PASIBO ARRUNTA		6.476	6.313
Merkataritzako hartz. eta kobratzeko beste kontu batzuk		6.476	6.313
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		418.766	421.903



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. GALERA-IRABAZIEN KONTUAK - 2017 eta 2016ko ekitaldiak

		Euroak milakotan	
	ERANSKINA	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		230	1.060
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....		35.791	30.582
Langileria-gastuak.....	A.4	(5.476)	(5.403)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	A.5	(31.254)	(26.242)
Ibilgetua amortizatzea.....		(53)	(131)
Narriadura eta ibilgetua bestereng. emaitzak		-	384
USTIAPENAREN EMAITZA		(762)	250
Sarrera finantzarioak.....		14	3
Jasotako dibidenduak		695	-
Gastu finantzarioak		(657)	(638)
Izaera finantzarioko diru-laguntzak egoztea		1.057	754
Baliabide finantzarioen kontz. narriadura eta emaitza		(23.360)	(12.087)
EMAITZA FINANTZARIOA		(22.251)	(11.968)
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(23.014)	(11.718)
Mozkinen gaineko zerga.....		(296)	(211)
EKITALDIKO EMAITZA		(23.309)	(11.929)



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas


C. ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA - 2017 eta 2016ko ekitaldiak

	Euroak milakotan	
	2017	2016
1. AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA		
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(23.309)	(11.929)
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	(761)	(543)
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	(24.070)	(12.472)

	Euroak milakotan					
	KAPITALA	ERRESERB.	AURR.EKIT. EMAITZA NEGATIBOAK	EKITALD. EMAITZA	DIRU-LAG. DOHAIN. LEGAT.	GUZTIRA
2. ONDARE GARBIAK ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERAK						
SALDOA 2015EKO ABENDUAREN 31N	436.968	32.676	(74.752)	(16.486)	3.822	382.228
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira ...	-	-	-	(11.929)	(543)	(12.472)
2015eko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	-	(16.486)	16.486	-	-
Kapitalaren igoerak.....	22.665	-	-	-	-	22.665
SALDOA 2016KO ABENDUAREN 31N	459.633	32.676	(91.238)	(11.929)	3.279	392.421
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	-	(23.309)	(761)	(24.070)
2016ko ekitaldiko emaitzaren banaketa.....	-	-	(11.929)	11.929	-	-
Kapitalaren igoerak.....	20.410	-	-	-	-	20.410
SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N	480.043	32.676	(103.167)	(23.309)	(2.518)	388.761

D. ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERAK - 2017 eta 2016ko ekitaldiak

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(23.014)	(11.718)
Emaitzari doikuntzak.....	21.812	11.178
Kapital arruntean aldaketak	(3.396)	5.323
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	709	728
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(3.889)	5.511
Ordainketak inbertsioengatik	(20.554)	(23.654)
Desinbertsioengatik kobrantzak	1	976
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(20.553)	(22.678)
Ondareko baliabideengatik kobrantzak	20.410	22.665
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	20.410	22.665
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(4.032)	5.498
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	10.692	5.196
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	6.660	10.692





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 5/1981 Legea, ekainaren 10ekoa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua sortzeari buruzkoa.
- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko testuategina onesten duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testuategina onartu eta EA Eren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 1994ko abenduaren 28ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra ibilgetuko enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 3/2011 Errege Lege-dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 2/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 5/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

SPKLTBren arabera, Sozietatea botere esleitzailerik da ondasunen eta zerbitzuen kontratazioan eta kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak gainditzen dituzten kontratuak (erregulazio harmonizatuari lotuak) prestatzeari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituztenek, onetsitako eta kontratatzailearen profileen argitaratutako Kontrataziorako Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean.

Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileak kontratatzeari dagokionez, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.

A.2 TALDEKO ENPRESETAN ETA KIDETUETAN EPE LUZEKO INBERTSIOAK

Hona hemen balantze bateratuaren epigrafearen xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

		Euroak milakotan	
	%PART.	2017	2016
Taldeko enpresetan partaidetzak:		362.862	360.579
Sprilur SA	94,03	203.795	196.792
Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa SA.....	73	567	567
Arabako Enpresa eta Eraberrikuntza Zentroa SA	51	1.540	1.627
Teknologia Parkea, SA	67,26	75.577	79.221
Arabako Teknologia Parkea SA	65,15	27.335	27.625
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA	66,94	53.988	54.747
Euskadiko Nazioartekotze Agentzia SA	100	60	-
Kidetutako enpresetan partaidetzak		1.764	1.914
Bic Gipuzkoa Berrilan SA.....	50	676	671
Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa SA	50	1.088	1.243
CEDEIBU.....	40	-	-
CEMA.....	19	-	-
GUZTIRA		364.626	362.493

Urriaren 31ko 241/2017 Dekretuaren bitartez, Gobernu Kontseiluak baimena eman zuen Euskadiko Nazioartekotze Agentzia SA izeneko sozietate publikoa sortzeko. 2017ko abenduaren 15ean sozietatea eratu zen 60.000 euroren partaidetza ordainduta, eta kide bakar Sozietatea bera du. 2018ko ekitaldian, Agentzia hasi da nazioartekotze jarduerak garatzen, orain arte Sozietateak egin ohi zituenak.

A.3 EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Hona hemen balantze bateratuaren epigrafearen xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

	%PART.	Euroak milakotan	
		2017	2016
Ezten, FCR	79,32	34.621	40.301
Suztapen, FCR	47	1.390	1.413
Ekintzalle XXI, FCR.....	18,45	-	121
ONDARE BALIABIDEAK GUZTIRA		36.011	41.835
Bestelako aktibo finantzarioak		709	9
GUZTIRA		36.720	41.844

A.4 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen 2017 eta 2016ko ekitaldietan langileria-gastuen eta plantillaren xehakapena:

	Euroak milakotan				
	Langile-gastuak		Plantilla 12.31n		Goi kargud.
	2017	2016	2017	2016	
Soldatak eta ordainsariak	4.506	4.309	75	70	1
Gizarte Segurantzak.....	893	856			
Kalteordainak.....	-	150			
Beste gizarte zama batzuk.....	77	88			
GUZTIRA	5.476	5.403	75	70	1

2017ko ekitaldiko ordainsari igoera % lekoa da 2016ko ekitaldiko diru-sarrera osoen aldean.

A.5 USTIAPENKO BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen emaitzen kontuaren idazpuruaren xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Kanpoko zerbitzuak	9.037	8.815
Errentamenduak eta kanonak	478	375
Konponketak eta artapena	19	30
Profesional independenteen zerbitzuak.....	6.881	6.852
Aseguru primak	15	14
Banku zerbitzuak eta antzekoak	17	18
Publizitatea eta propaganda	686	616
Hornidurak	2	2
Bestelako zerbitzuak.....	939	908
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk	22.705	17.418
Taldeko enpresei eta kideetuei emandako diru-laguntzak	3.491	2.898
Enpresa Digitala programa	878	788
KABI 612.....	394	392
BIND 4.0	425	-
Meta posta.....	450	450
Beste programa batzuk	1.344	1.268
Hirugarrenei emandako diru-laguntzak	19.214	14.520
Programa Industria Digital@ (*).....	2.254	2.563
Programa Compite	(37)	(19)
Programa Ekintzaile (*)	1.990	1.600
Inbertsioari finantza laguntzak emateko programa (AFI)	(15)	98
Programa Connect eta Mini Connect.....	50	98
Programa + Innova	(9)	(36)
Belaunaldi arteko erreleboa	60	74
Lehiakortasunaren Euskal Institutua programa.....	675	675
Programa Estrategia Innobideak (*).....	2.201	2.073
Programa Renove Maquinaria (*)	9.497	5.940
Programa Basque Industry 4.0 (*).....	1.562	540
Enpresa Digitala programa (*)	416	401
Beste programa batzuk	570	513
Zergak	5	9
Soberakina eta horniduren aplikazioa	(493)	-
GUZTIRA	31.254	26.242

(*) HKEEK fiskalizatutako programak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2017an esleitutako eta lehenago ekitaldietan esleitu arren, 2017an egikaritu diren espedienteen lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu.

DESKRIBAPENA	Esleipen urtea	Prozed.	Euroak milakotan		
			BZ	Esleitua	Exekuz.
Zerbitzuak					
1. Harrerako berezko administrazio-kudeaketa	2016	PN	174	86	79
2. ICTetan irtenbideak emateko aholkularitza teknologikoa mikroenpresetan	2016	irekia	208	AP	199
3. Telefono bidezko arreta - Dataentry.....	2017	irekia	472	AP	58
4. Berrikuntza ez teknologikoari buruzko informazio bilketa, kontzeptuak argitzea eta programa publikoak hedatzea.....	2017	irekia	200	AP	24
PN Publikotasundun negoziatua.					
AP Aleko prezioak.					
BZ Balio zenbatetsia.					





SPRI-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA SA-REN 2017KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

SPRI-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea Saren 2017ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko asmoz, sozietateak horri lotuta aurkeztu dituen alegazioak eta justifikazioak erantsi zaizkio txosten honi. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu ditu horiek guztiak

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

“Sozietateak lan-kontratu mugagabe bat egin du, baina 2017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako birjarpen-tasa gaindituta.”

2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 15. xedapen gehigarria, hain zuzen ere, merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzeari buruzkoa da:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzea.

Bat.

1. Lege honen 18. artikulua Bat zenbakian aipatutako merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.

2. Muga horiek ez dira aplikatuko dagokion enpresa-entitate publikoa edo merkataritza-sozietatea bilduta dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko sektore publikoan alde zuzenetik harreman finko eta mugagabea duten langileak kontratatzean, funtzionarioak edo lan-kontratadunak izan. Zenbaki honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuak antzintasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, organismo publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da langilerik aldi baterako kontratatu, ez bada aparteko kasuetan eta behar urgente eta geroraezinak estaltzeko, edo kontratu horiek azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 24.6 artikuluko baldintzetan egiten direnean.

4. Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lege honen 19. Bat. 2 artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek gehienez ere aipatutako arauan kasuan kasuko sektorerako ezarritako berrezarpen-tasa izango dute, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

5. Azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek –aurreko zenbakian jasotakoez beste batzuek– kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 100 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.4 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

Gainera, azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan ez dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek –aurreko zenbakian jasotakoez beste batzuek– kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 60 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.4 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da. Horrez gain, aldi baterako enplegua sendotzeko prozesuetarako soilik, kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 15 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.4 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

Bi. Estatuko merkataritza-sozietateen eta enpresa-entitate publikoen kasuan, langile berriei kontratu mugagabea egiteko, Bat zenbakian xedatutakoa betetzeaz gain, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren –Aurrekontuen eta Gastuen eta Funtzio Publikoaren estatu-idazkaritzen bitartez– eta akziodun maioritarioaren aldeko txostena beharko da.

Halaber, aipatutako sozietateen eta enpresa-entitate publikoen aldi baterako kontrataziorako, xedapen honen Bat zenbakian ezarritako baldintzez gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen eta Funtzio Publikoaren estatu-idazkaritzen bitartez.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen-prozesuetan, berdintasun-, publikotasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

Estatuko merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masa baimentzeko eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Aparteko kasuetan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen eta Funtzio Publikoaren estatu-idazkaritzen bitartez, baimena eman ahalko du, aurrez aipatutako mugen ginetik, kontratazioak egiteko; hain zuzen ere, akziodun maioritarioak onetsi dituen eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen aldeko txostena duten plangintza-tresna estrategikoak betetzeko behar diren kontratazioak.

Lau. Xedapen gehigarri honen Bat zenbakian ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluetan xedatutakoaren babesean emana dago”.

15. xedapen gehigarriak berrezarpen-tasa desberdin bat ezartzen du, merkataritza-sozietate publikoaren izaeraren, funtzioen eta ezaugarrien arabera. Ondorio horietarako, alderdi hauek hartzen dira kontuan:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- (i) Dagokion merkataritza-sozietatea bilduta dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko sektore publikoan langileek aldeaz aurretik duten harreman finko eta mugagabea.
- (ii) Aldi baterako langileak kontratatuz gero, larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharrianak.
- (iii) Sozietateek zerbitzu publikoak kudeatu edo 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19. Bat. 2. artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten.
- (iv) Sozietate publikoek etekinik lortu duten ala ez.
- (v) Estatuko merkataritza-sozietateak diren ala ez.

Hala, fiskalizazio-txostenak % 60ko berrezarpen-tasa hartu du erreferentziazat. Tasa hori azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan ez dituzten merkataritza-sozietateentzat dago aurreikusita, 15. xedapen gehigarriaren Bat. 4. artikuluan 1. atalitik 4. atalera bildutako berezitasunak bete gabe.

Hala ere, ez da kontuan hartu 15. xedapen gehigarriaren Bat. 4. artikuluan merkataritza-sozietate mota hauentzat jasotako erregulazio berezia:

- a) zerbitzu publikoak kudeatzen dituztenak; edo
- b) 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19. Bat. 2. artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituztenak.

Bat. 4. artikulua 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen berritasun bat da, lehentasunezko sektoreetan sartutako jarduerak egiten dituzten erakundeei dagokienez. Zera aipatzen da, hitzez hitz, Hitzaurrian (X. artikulua):

“Jasotako mugekin eta baldintzekin, arautzen da merkataritza-sozietate publikoek, lege honen Bat. 18. artikuluan aipatzen diren enpresa-entitate publikoek eta sektore publikoko fundazioek eta partzuergoek aukera izan dezatela langile berriak kontratatu ahal izateko. Berritasun gisa jasotzen da zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lehentasunezko sektoreetan sartutako jarduerak egiten dituzten sozietateek kasuan kasuko lehentasunezko sektoreari dagokion berrezarpen-tasa bera izan dezatela, beren jardueraren emaitza edozein dela ere.

Lehentasunezko sektoreetan zerbitzuak kudeatzen dituzten edo jarduerak egiten dituzten sozietateek % 100eko berrezarpen-tasa bat edukiko dute, baldin eta azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan badituzte; hala ez bada, % 60koa edukiko dute”.

Salbuespen horren helburua da, hain zuzen ere, berrezarpen-tasa handitzea lehentasunezko sektoreetan sartutako jarduerak egiten dituzten sozietate publikoen kasuan; hala, euren jardueraren emaitza edozein dela ere, kasuan kasuko lehentasunezko sektorearekin pareka daitekeen berrezarpen-tasa bermatzeko (kasu honetan, % 100ekoa izango litzateke).

Funtsean, asmoa da entitate bateko langileen berrezarpen-tasa ez mugatzea Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak lehentasunezko sektoreetan hartzen dituen sektoreetan dagoen eratzeko modu juridikoaren oinarriaren gainean, garrantzitsuena ez baita entitatea eratzeko forma juridikoa, baizik eta egiten dituen jarduerak.



Lehentasunezko sektoreak 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19.Bat.2 artikuluan aurreikusita daudenak dira:

“2. Betiere I. kapituluan gastu-aurrekontuetarako xedatutako aurrekontu-erabilgarritasunak errespetatuz, honako sektore eta administrazio hauetan berrezarpen-tasa gehienez ere ehuneko 100 izango da:

A) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa garatzeko hezkuntza-eskumenak dituzten Administrazio Publikoak, irakasle funtzionarioen kidegoan sartzeko lanpostu kopurua zehazteari dagokionez.

B) Osasun-eskumenak dauzkaten Administrazio Publikoak, Osasun Sistema Nazionalako osasun zerbitzuetako lan-kontratupeko langileen lanpostuei dagokionez.

C) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, lurraldean polizia-kidego autonomoak dituzten autonomia-erkidegoetako polizia-kidego autonomoak, eta, toki-administrazioaren esparruan, udaltzaingoetako langileak, lanpostu horiek betetzeari dagokionez.

D) Indar Armatuak, karrerako militarren eta militar osagarrien lanpostuei dagokionez, Karrera Militarri buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean xedatutakoaren arabera.

E) Administrazio Publikoak, zergen, lanaren, dirulaguntza publikoen nahiz Gizarte Segurantzaren arloetako iruzurra kontrolatzeko eta horien aurka borrokatzeko, bai eta baliabide publikoak modu efizientean esleitzen direla kontrolatzeko ere.

F) Administrazio Publikoak, aholkularitza juridikoari eta baliabide publikoen kudeaketari dagokionez.

G) Justizia Administrazioko Letraduen Kidegoetako eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lanpostuak.

H) Administrazio Publikoak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeari dagokionez.

I) Estatuko Administrazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean zehaztutako ikerketa-organismo publikoetako ikertzaile doktoreen lanpostuei dagokionez.

[...]

J) Unibertsitateko Katedradunen eta Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoetako lanpostuak, Unibertsitateko irakasle doktore kontratatuak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 52. artikuluan arautuak, eta unibertsitateetako administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanpostuak; betiere, haien ardura duten Administrazio Publikoek dagozkien deialdiak baimentzen badituzte, eta aldeztatik egiaztatzen bada lanpostu horien enplegu publikoaren eskaintzak ez diola kalterik egiten dagokion unibertsitaterako ezarritako aurrekontu-egonkortasunerako helburuak betetzeari, ez eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako mugei ere.

[...]



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

K) Administrazio Publikoak, balore-merkatuak eta horietan parte hartzen dutenak ikuskatzeari eta ikertzeari dagokionez.

L) Aire-segurtasunari dagozkion lanpostuak, aire-segurtasuna, hegaldiak, aireportu-eragiketak eta horiekin lotutako jarduketak ikuskatzen eta gainbegiratzen dituzten langileei dagokienez; eta itsas segurtasunarekin lotutako langileen lanpostuetan, itsas salbamendu eta prebentzioko lana eta itsas kutsaduraren aurkako borroka egiten dutenean, baita trenbide-segurtasunarekin eta trenbide-eragiketekin lotutako langileen lanpostuei dagokienez ere.

M) Espetxe Administrazioa.

N) Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua, instalazio erradioaktibo eta nuklearrak zuzendu, aztertu eta ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzten Segurtasun Nuklear eta Babes Erradiologikorako Kidegoko goi-eskalako funtzionarioen lanpostuei dagokienez.

Ñ) Estatuaren Atzerri Ekintzan.

O) Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei laguntza zuzena ematen dieten langileen lanpostuak.

P) Enpleguaren arloan prestazio eta politika aktiboak kudeatzen dituzten langileen lanpostuak.

Q) Segurtasuneko eta larrialdietako lanpostuak.

R) Garraio publikoaren zerbitzuko erabiltzaileentzako zuzeneko prestazioan aritzen diren langileen lanpostuak.

S) Zerbitzu publikoetan herritarrei arreta egiteko langileak”.

Lehentasunezko sektore horien artean, dirulaguntza publikoen kontrola aurkitzen da.

SPRIren xedeetako bat, sozietatea sortzeko legearen 4. artikularekin bat etorriz –5/1981 Legea, ekainaren 10ekoa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortaraztekoa (2017ko ekitaldian aplikagarria)–, dirulaguntza publikoak ematea da; hain zuzen ere, jarduten duen sektore ekonomikoak sustatzeko bitarteko gisa, bere ezaugarri bereizgarriena da eta. Gainera, berezitasun hau izan behar da kontuan: merkataritza-sozietate publiko honen sorrera eta bere helburua osatzen duten zereginak legearen arabera zehazten dira, era formalean. Horrelaxe dio 5/1981 Legearen 4.1. artikulua:

“Laugarren artikulua.

Baltzuak, bere xedeak betez, dirulaguntzak eta erdi-eperako edo epe luzerako maileguak eman ahal izango ditu interes-tasen baldintza berezietan, bai eta enpresentzako bermeak ere, Eusko Jaurlaritzak horrekin lotuta ematen dituen arauen arabera”.

Dirulaguntza publikoen programetan oinarritutako sustapen-neurrien bidez esku hartzea SPRIren bereizgarria izan da, sozietatea sortu zenetik. Hain zuzen ere, eredu hori 2017ko ekitaldian mantendu da (eta orain arte); SPRIk dirulaguntzen hainbat programatan esku hartu du, bai ekintzaile eta sortzaile gisa bai Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Administrazio Orokorrak edo Estatuako Administrazio Orokorrak –nagusiki, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak– sortutako programetan parte hartuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Jarraian, SPRIk 2017. urtetik hona esku hartu duen dirulaguntzen programen zerrenda emango da, programa sortu duen administrazioa zehaztuta eta SPRIk kontrolatu dituen dirulaguntzak adierazita:

DIRULAGUNTZEN PROGRAMAK	SPRI	EAE	INDUSTRIA MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA	SPRI-KO LANGILEEK KUDEATUTA
TEKNOLOGIA				
1. HAZITEK	-	SI	-	SI
2. ELKARTEK	-	SI	-	SI
3. EMAITEK PLUS	-	SI	-	SI
ENPRESA SUSTAPENA				
4. EKINTZAILE	SI	-	-	SI
5. GAUZATU INDUSTRIA	-	SI	-	SI
6. GAUZATU IMPLANT. EXT.	SI (2019)	SI	-	SI
7. RENOVE MAKINERIA	SI	-	-	SI
8. RENOVE INDUSTRIALDEAK	SI (SPRILUR)	-	-	SI
9. REINDUS	-	-	SI	2017 Difusión Programa 2018-2019: Análisis Técnico y Financiero de las propuestas De empresas del País Vasco
10. INDARTU	-	SI	-	SI
11. BIDERATU	-	SI	-	SI
BERRIKUNTZA				
12. KUDEABIDE	SI	-	-	SI
13. LEHIABIDE	SI	-	-	SI
14. PERSTONAK	SI	-	-	SI
15. INNOBIDEAK	SI	-	-	SI
INFORMAZIOAREN GIZARTEA				
16. INDUSTRIA DIGITALA	SI	-	-	SI
17. BASQUE INDUSTRY 4.0	SI	-	-	SI
18. ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALA	SI	-	-	SI
19. PEBA	-	SI	-	SI
NAZIOARTEKOA				
20.SAKONDU	SI	-	-	SI
21.ZABALDU (Global Lehian 2017an eta 2018an)	SI	-	-	SI
22. BEINT	SI	-	-	SI
23. GLOBAL TRAINING	SI	-	-	SI
24. PILOTU	SI	-	-	SI

SPRIk 2017. urtetik parte hartu duen dirulaguntzen 24 programetatik:

- 16 SPRIk sustatu ditu zuzenean, edo oraindik sustatzen ditu.
- 8 EAEk SPRIrekin elkarlanean sustatu ditu, edo oraindik sustatzen ditu.
- Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatu du, SPRIrekin elkarlanean.

Aipatu diren dirulaguntzen 24 programetatik 3 2017ko ekitaldian lan-kontratu mugagabe baten bidez kontratatu den langileak kudeatu ditu, zuzenean.



Kontua ez da bakarrik SPRIk 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19.Bat.2 artikuluan aurreikusitako lehentasunezko sektoreetan jarduerak egitea (dagokion sektore kritikoa aintzat hartuta, berrezarpen-tasaren % 100 aplikatzeko oinarri nahikoa izango litzateke), baizik eta 2017ko ekitaldian lan-kontratu mugagabearen bitartez bete den lanpostuaren eginkizun espezifikoak dirulaguntza publikoak kontrolatzeko zereginekin lotuta zeudela.

Adibide moduan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren ekimenez eta SPRIekin elkarlanean deitutako dirulaguntzen programaren kasuan (Reindus), kontratatutako pertsona SPRIk Ebaluazio Batzordeko kide izateko izendatutakoa da. Ebaluazio Batzordea Ministerioarekin batera gauzatutako hitzarmenaren babesean sortu zen, eta, EAEn, 50 proiekturen kontrol zuzenean parte hartu du.

Gainera, dirulaguntzen beste programa batzuen kudeaketan, izapideetan, garapenean eta kontrolean parte hartu du; besteak beste, Bideratu eta Indartu programetan. Lehenengo programari dagokionez, krisian zeuden enpresak berregituratzera eta berriz sustatzera bideratutako laguntzak eman ziren; eta, bigarrean, aldiz, inbertsio produktiboa egiten duten enpresei eman zitzaizkien laguntzak, lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa hobetzeko eta Oiertzualdeko eta Nerbioi ibaiaren ezkerreko ertzeko eremuak eta langabezia-tasa EAEko urteko batezbestekoa (% 20) baino handiagoa duten beste udalerrri batzuk sustatzeko.

Azaldutako guztiagatik, SPRIk dirulaguntzak kontrolatzeari dagokionez, legez, lehentasunezko hartutako sektoreetan jarduten zuenez eta, bereziki, kontratazioaren xede den lanpostuari eginkizun horiek esleitu zizkionez, 2017ko ekitaldian aplikatu behar zen berrezarpen-tasa % 100ekoa zen, 15. xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19.Bat.2 artikulua araberan.


III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 ETORKIZUNeko KONPROMISOAK

“Sozietateak 2017ko abenduaren 31n hartutako etorkizuneko konpromisoen guztizko zenbatekoa -15,7 milioi euro- onartutako kredituen zenbatekoa baino 1,2 milioi euro gehiagokoa da; beraz, aurrekontuan egin behar zuen aldaketa izapidetu behar zuen. Soberakin hori, nagusiki, Makina-Erreminta Programatik dator. Programak 2018ko ekitaldirako duen aurrekontua 9 milioi eurokoa da, eta programaren azken konpromisoak estaltzen ditu; guztira, 8,9 milioi euro.”

Hain zuzen ere, 2017an, Makina-Erreminta Programaren benetako konpromisoetan soberakina egon zen, aurrekontuan sartutako etorkizuneko konpromisoen aldean.

Dena den, 2018. urterako aurrekontu orokorretan, aurreko ekitaldian hartutako konpromisoak estaltzeko behar zen kreditua aurreikusi zen, eta ez zen behin ere ez erabili aurrekontuan sartuta ez zegoen funtsik.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

AFI Ayudas Financieras a la Inversión.

CAE Comunidad Autónoma de Euskadi.

FCR Fondo de Capital Riesgo.

TRLCSP Texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las Cuentas Anuales de la Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA (en adelante la Sociedad), correspondientes al ejercicio 2017.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: el cumplimiento de la legislación vigente en materia de adquisición de bienes y servicios, personal, concesión de ayudas y gestión económico-financiera.
- Contables: el sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

El trabajo de fiscalización se ha desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias en cada circunstancia para soportar la opinión contenida en el informe, incluida la revisión de los papeles de trabajo que soportan la auditoría de las cuentas anuales efectuada por los auditores externos.

El 21 de septiembre de 1981 se constituyó la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, SA, por aplicación de la Ley 5/1981, de 10 de junio. Con fecha 6 de junio de 2011 se inscribió en el Registro Mercantil de Álava el cambio de denominación pasando a ser Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA. Conforme a su ley de creación, la Hacienda General del País Vasco velará por el equilibrio financiero de la Sociedad.

